



Beroari aurre egiteko, ez dago lagun zaharrekin sagardo fresko pixka bat edatea baino gauza hobirik. andoni canellada / arguzki press

Jende andanak: txotx!

Arrakastatsua izan da **Donostiako XX. Sagardo Eguna**. Eguzki galdatan, sagardo fresko-freskoa edan dute askok

Beñat Egues

Donostiako Parte Zaharrera sartzerakoan, tabernaz taberna jende asko dabil. 11:30 aldera, hamaiketako egiten, gustura. Zuritoarekin eta pintxoarekin, aita-semeak, bikoteak, lagun taldeak... jende asko dago gaur Donostian, jendetza. Nola egongo ote da Konstituzio plaza...

Poliki-poliki plazara hurbilduz goaz, eta inguruko kaleetatik entzuten da, dagoeneko, zalaparta. Gertuko kaleetan, badago halako sagardo usain ahul bat, mehea. Baina hurbiltzen ari garen heinean, trikitixa doinuekin batera, usainak indarra hartzen du. Eta nola! Sagardoa eta festa han daude. Jende asko dagoela ematen du, sekulako giroa.

Iritsi gara. Ehunka buru. Ehunka edalontzi. Giroa... eguraldia bezain beroa. Sagardoa nahi adina, eta jendea alde batetik bestera euren sagardotegi gustukoenaren bila. Astigarragatik, Usurbildik, Hernanitik, Donostiatik bertatik... 50 sagardotegi joan dira Konstituzio plazara, eta alde guztietan badago edaria. Hori bai, asko egonik ere, edalontzia betetzeko puska batean itxaron behar... Atera kontuak. Sagardoa fresko-fresko dago, eta egiten duen beroare-

kin ezin hobeto sartzen da. Zintzurrek edaria eskertzen dute, eta, gainera, zein baino zein sagardo gozagoa da. Bata bestearen atzetik, mihiak ere askatzen hasi dira, eta badira, dagoeneko, kantuan hasi diren hainbat lagun koadrila.

«Joxe!», «Marga!»... Lagun zaharren topagunea da gaurkoa, eta elkar ikustean: «Txotx!». Zertarako aitzakia gehiago? Kontu kontari, aspaldiko kideekin azken berriak kontatzen, edonon ikus daitezke irribarre eta laguntasun keinuak. Ez da seinale txarra, bat edo beste eskuak altxa eta trikitixaren doinuean dantzatzera animatu deanean.

Eguzkia, indartsu

Eguzkiak gogor jotzen du, eta bero erreka dago. Sargori. Ez dira gutxi eguzkitako betaurrekoak daramatzatenak, eta zera urruti dago ilun egotetik. Gehienak galtza motz eta gonekin dabilta, bero itogarriaren freskatzeko zerbaiten bila. Etxeberrian, Petritegin, Bereziartun... botilak eten gabe husten ari dira, egarriaren seinale. Baina, sagardoarekin, pintxo bat ere ederki sartzen da. Plazaren erdian, otarteko txikiak saltzen dituzte, eta bat bera eskatzeko ere, ilarak. Txistorra, bakailloa... jateko aukera handia dago.



50 sagardo mota izan dira Donostian. andoni canellada / arguzki press

12:30 aldera, trikitixa doinuek amaitu, eta bertsolariei utzi diete lekua. Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano aritu dira bertsotan, ederki. Plazagizonak izaki, dagoeneko alai dagoen jendea iriari sartu eta barre algarak eragiten. Sagardoaren eragina nabari da: «Kar, kar!», barre algarak, ez ote dira azkarregi eta indartsuegi hasi?

Geruz eta jende gehiago dago, eta Konstituzio plazaren lau sarretatik jendea eten gabe sartzen da. Ez dago leku askorik, baina oraingoz gustura egoten da. Halako batean, hanka sagardoarekin busti digute. Eta edaria, irristan lurreko putzu batera isuri da. Sagardo putzua. Edalontziaren azken hondar berotuak bota, eta edari fresko gehiagoren bila doazen seinale. Ez du hanka pixka bat bustitzeak inporta, eztarria lehor ez badago behintzat.

Bertso emanaldia ez da oso luzea izan. Lizaso eta Peñagarikano gai bitxiak jarri, eta hauek, zakur zahar, pare bat ateraldirekin, jendearen txaloak irabazi dituzte. Umore ona eta barrea, zer gehiago behar da ba? Baina, hasi eta ordu erdira, bertsolarien saioa amaitutzat jotzen dute.

13:00etan, Donostiako Euskal Jaien XX. Sagardo Eguna izanda, sagardogileei omenaldia egin diete. Laburra, baina polita. Txalo artean eskertu dituzte hitz hunkigarriak, txalaparta doinuekin nahastu baino lehen. Eta txalaparta hastearrekin bat, «Txooot!» entzun da berriz. Zertarako galdu denbora gehiago? Badirudi jaiak ez duela etenik, ez behintzat, eguzki indartsu honen azpian, sagardo freskoa eta umore ona gelditzen diren artean.